

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

1130

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 6koa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez erabakitzen baita jendaurrean jartzea Dimo Zinc-Níquel, SLU enpresak aurkeztutako ingurumen-inpaktuaren azterlana eta proiektu teknikoa, Vitoria-Gasteizen pieza metalikoak tratatu eta estaltzeko.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuategina onartzeko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren xedea da: atmosfera, ura eta lurzorua ez kutsatzea, edo, hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, eta, hori lortzeko, helburutzat harturik ingurumen osoaren babes-maila handia, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuategina onartzeko abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, ingurumen-baimen integratua behar da I. eranskinean aipatzen den jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko; izan ere, ingurumeneko baimen integratuaren helburua da beharrezkoak diren baldintzak ezartzea araua bete behar duten instalazioek beren xedea bete dezaten, hain zuzen, baimena ematerakoan parte hartu behar duten Herri Administrazio desberdinen lankidetzaren bermatuko duen eta hiritarren administrazio beharrak arintzen dituen prozedura baten bitartez gauzatuko dena.

Proiektu Publiko eta Pribatuen Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, lege horren I. eranskineko lanen, instalazioen edo beste edozein jardueraren ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazioa egin behar da legean jaso bezala.

Kontuan hartu da ingurumen-organo honetan hasi direla Dimo Zinc-Níquel, SLU enpresak aurkeztutako ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena lortzeko izapideak, Gasteizen pieza metalikoak tratatu eta estaltzeko, eta proiektua badagoela adierazita Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuateginaren I. eranskinean, zeina abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen.

Kontuan hartu da Dimo Zinc-Níquel, SLU enpresak ingurumen-organo honi aurkeztu diola ingurumen-inpaktuaren azterlana eta proiektua, ingurumen-baimen integratua eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eman dakizkion; izan ere, proiektua jasota dago ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen I. eranskinean.

Ingurumen-baimen integratua eskuratzeko aurreikusitako prozeduraren arabera, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ostean, jendaurreko informazioaren aldia ezarri behar da, gutxienez 30 eguneko.

Ikusi dira: 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko Lege Orokorra; 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testuategina onartzeko; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio

Prozedura Erkidearena, eta aplikatu beharreko gainerako araudi orokorrak eta berariazkoak, eta, horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Dimo Zinc-Níquel, SLU enpresak aurkeztutako proiektu teknikoa eta ingurumen-inpaktua-ren azterlana, ingurumen-baimen integratua eman dakion Gasteizen pieza metalikoak tratatu eta estaltzeko. Epe horretan, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Bigarrena.– Aurreko artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, proiektua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 2. solairua, Vitoria-Gasteiz). Herritarrek proiektua eskura izan dezaten, Vitoria-Gasteizko Udaletxean ere kontsulta daiteke, informazio-aldiak irauten duen bitartean.

Dokumentuak jendaurrean daude Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren taulan (<https://euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>) eta Ingurumen Sailburuordetzaren Jendaurreko Informazioan (<https://euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/kutsaduraren-prebentzioa-ingurumenaren-ikuskaritza-kontrola/>).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 6a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.